

LES BASQUES ET LEURS HISTOIRES

Mythes et réalités

Jean Goyhenetche,
Elkar argitaletxea, Baiona, 1993

Urte asko da jada Manex euskal historia arakutzen ari dela. Hirurogeitahamarreko urteetan "L'oppression culturelle française au Pays Basque" argitaratu zuenetik lan mardulak eta arrazoitsuak eman izan dizkigu. Oro euskaldungoaren defentsatik edo autokritikatik bideratuz, geroz eta toki gehiago egin izan dio azterketa-eredu unibertsitarioari. Azken honen lekuko "For et coutumes de Basse Navarre"; eta gaur hemen aipatu nahi dugun izenburuko obra hori.

1992ko abenduaren 19an Pabe eta Aturri Herrietako Unibertsitatean, C.Desplat zuzendari izanik, "Analyse critique de l'historiographie basque du XVIe au XIXe siècle" deituraz, doktoradutzako tesi bezala aurkezturiko testua dugu izenburu berri horrekin aipagai. Tesiaren testua, salbuespen batekin hala ere; Tesian erantsitatzat ematen diren idaztauletan, mapetan, laburbildumetan eta bibliografian tipitze zenbait gertatu baita. Espezialistak honela badaki frantses unibertsitateko tesien kutxan falta den zertxo hori eskura dezakeela.

Eta barreneratzen bagara! Euskal historiografiaren hastapena markatuko duen obraren aitzinean gaudela uste dugu, nahiz eta Ch. Desplat zuzendariak liburuari egiten dion hitzaurrean jadanik Jesus Maria Prietok lan hori

hasi zuela gogoratu. Nahi dugu euskal historia, baina, nola landu da historiariatzat ematen zaiguna? Zer teknika erabili dira horretan? Historia egiteko ditugun metodoen arabera material batzuk beste batzuekiko pribilegiatuak ala baztertuak gertatzen direnean, zer da historia? Guzi honek igaroaz ari garenean egiten dugun balore-epaiketaren, klasifikazioaren eta hierarkizazioaren arazoa nabarmentzat digu. Historiografia bada, lehenik eta behin, historiaren historiaz, kriterio sakon eta zorrotzekin egindako gogoeta da. Historiografiak, gainera, Ch. Desplat zuzendariak gogorarazten digunez, "desmitifikazio osasungarriaren" eginkizuna ere bete ohi du. Bigarren eginkizun hau gure egin nahi dugu, baina, ez al da egia, eginkizun hori errazki ideologia baten, botere baten edo estetika indibidual edozeinen kapritxo bihur daitekeela? Ez dira hutsetik datozkidan galderak. Horiek justifikatzen dituzten jokabideak ugari aurki genitzake azken hamarkadetan Hego Euskal Herriko historialari "ofizialen" errola betetzen dutenen artean. Estatuaren boterea, ideologia estatala, estatuaren status quo-a errespetatzen duten estetika indibidualak bakarrik kontutan hartzen dituen historia egiten baita. Are, hortik at gure Herriaren protagonismoa, bere

talde sozial hautatuen historia agertzen entseiatzen direnak irrigarri uzten ahaleginduz planfletariotzat ematen dira. Honela bada, "desmitifikazio osasungarriaren" izenean ele nahasiak, ustelak produzitzen dituzte.

Eginiko oharrak eginik, igaro gaitezen liburuaren atal eta galdera nagusiak iruzkintzera. Autorearen aurkezpen orokorrean ikerketako espazioa eta metodologia zehazten zaizkigu, "euskaldunek historiarik ba al dute?" galderaren bidez. Are J.M. Hiribarrenek ederki idatziriko hau bereganatzen da horren ilustrazio bezala: "gutik jakin herrian nondik heldu diren, zer egin duten aitek hemen egoteko, bere sorleku maitea harmez beiratzeko". Horrekin loturik "zer ulertu behar da historiografiaz" eta "zer Euskal Herriz ari gara" galderak mugatzen dira. Eta guzi horren ondorio bezala, hamaseigarren mendean ikerketaren hastapena kokatu badu horretarako arrazoirik dagoela gogorazten digu: entitate administrati- boen finkatzea, errepresentazio kartografikoaren bidez Euskal Herriaren mugak marraztu ahal izatea, etabar.

"Euskaldunetz atzerritarrek osoturi- ko Irudiak" izenburuz irekitzen zaigu liburuaren lehen parte. Barreneratzen garen bezala, testuen miaketarako zirriborraturiko aurregalderak agertuz, Euskal Herria haundizkien historiarentzat antzerki-toki eta pasadizo izan dela esaldia aztertzen da. Baita ere singularitatearen ideiak euskal ikerketak estali izan dituela erakusten zaigu. Agertzen zaigunez, Euskal Herria antropologiarentzat toki pribilegiatua izan dela usadioen aberastasuna eta bizitasuna medio.

Puntu honetatik urrats eginaz, "euskal historiografiaren bila" abiatzen da. Horretarako bitarteko ditugun estatistika-ondorioen ikerketarako, kontutan hartu beharrekoak gogorazten zaizkigu: idatzien errezensioa, eta biblioteketako inbentarioen argitze koalitatiboa, hain zuzen. Konstatatzen zaigu ere, hamaseigarrenean euskaldunen artean ahozko produkzioa nagusi dela, liburu mailan berriz erlijiozko eta norma-emaileak direnez. Hala ere, mende horretan euskarazko idatzia pizten zaigu Detxeparerekin. Produkzio historiografikoari dagokionean sailkatze-saio bat proposatzen da: 1572tik 1789ra dagoen produkzio historiografikoaren zenbaketaz hasi, eta interpretaziora igarotzen delarik. Puntualizazio horien ondotik, hiru atal nagusi irekitzen dira: hasteko, nafar- tasunak induzituriko historia nabarmentzen da. Nafar historialarien artean joera desberdinak atzematen dira: monarkia bikoitzaren leialtasuna aldarrikatzen dutenak; frantses- sentimendu nazionalen apologia egiten dutenak (Frantziarekin batasuna egitearen aldeko apustua eginez, frantses historia monarkiaren molde- tzat aipatuz). Nafar historiografiaren sintesia eginez, esan daitekeena da, Estatuaren aldeko dinamika eta euskal historiografia espezifikokoaren falta adierazgarri nabarmentzen direla.

Jarraian genealogiaz eta hizkuntzalaritzaz aseriko historia aldi bat eman izan dela erakusten zaigu. Frantziako kristau-erreinuaren zerbitzuko sistema kondalariaren perspektiba berriak, eta 1610etik 1620ra dagoen historiografiaren geldialdia azpimarratuz gero, hizkuntzaren jatorriaz egiten hasiko den kondairak

historiaren kondairari gain hartu ziola konstatatzen da. Bere mamia ondoko gisan formulatzen da: euskaltzaletasunaren gogozko eta historiazko horizontea seinatuz (Axular edo Joanes Etxeberri bezalako idazleetan hiru elementu ageri dira: erregea, apezpikua eta aitonsemeak), eta mito fundatzailearen idazkera bideratuz. Guzi horretan A. Oihenarten tokia bereizi beharreko gertatzen da: Estatuaren eraikuntzan konprometituriko norbait: nafar zalez; eta erregetiar legalista. Historiagile izanik bere "Notitia" arras obra deigarria eta garrantzitsua aipatzen da: euskaltzaletasunaren historialaria dela; euskal kutura elitistaren eredu dela; eta erudito libertinotzat eman daitekeela.

Beste uhin bat dator berehala: nafar neoforalismoarena eta bere interpretazio aristokratikoarena (XVIII. mendearen bigarren erditik aitzinera). Bela Zaldunak eginiko euskal identitatearen interpretazio aristokratikoak ilustratuko luke besteak beste. Bere diskurtsoaren mamia ondoko osagaiez egina dago: Euskaldunen historia idatzi beharra; Euskaldunen eta beren aberriaren definizioa. Nor den Bela Zalduna? Erregetiar izanik historiari xede moral eta normatiboa ezartzen diona da lehenik. Baita ere, proposaturiko arketipo historikoak azpimarragarriak dira.

Bestalde eginkizun berean Sanadon eta Polverel izendatu behar dira: 1775etik 1785era nobleziaren aldeko historiografotzat aipatzen dira. Sanadon, letra ederren zalea, nobleziaren ideiarenean hurbilean artikulaturiko semantika berezi baten sortzaile litzateke. "Askatasun" kontzeptuari

erabilpen utilitarista ematen diona. Norabide finkoz beteriko historiaren egilea da. Hori zela eta, hirugarren estatuak (burgesiak) ez zuen begi onez ikusten. Aitonsemeen pribilegioen defendatzaile izanik euskaldunen alteritate absolutuaren defendatzailetzat ematen zaigu.

Polvereli dagokionean bere formazio zehatza azpimarratzen da: legegizona zen. Bere lanari so, darabiltzan dokumentuen manipulazioa salatzen da. Guzi hori aitonsemeen onerako, noski. Bere "Mémoires" obra zehazkiago aipatuz ondoko hau ateratzen da: Nafarroako Estatuaren errealitate historikora itzultzea atzemango luke. Hautuzko eta hitzarmenezko monarkia izango litzateke horretarako bidea. Eraikuntza sozialaren kontrolerako aitonsemeen birjabetzarako estrategia muntatzen du.

Bi autore hauen lanen ondorio historiografia neoforalista eta euskal identitatea elkartzen dira: Nafarroa Behereko neoforalismoaren jatorri historikoak arakaturik; Nafarroako neoforalismoak askatasunarekin duen lokarria seinatuz; hemezortzigarren mendeko ideien testuinguruan neoforalismoa errotuz; finean, diskurtso neoforalista frantses ereduaren integrazteko bide dela erakutsiz.

Hirugarren eta azken partera ailegatzean XIX. mendea historiografiaren jalgitzearena izendatzen da. Frantses Iraultzaren eta Inperioaren orduan historiografi produktioak edukirik gora-beherak aipatzen zaizkigu. Eta galdera zenbait pausatzen da; zergatik "Euskaldunen Historia Orokorraren" ideia ez da sortu?, da lehena. Egiategiren proiektua emanik ere, produktioaren tokia falta

azpimarratzen zaigu. Nola esplika iraultzaileen garaiko eta Inperioaren erako hutsunea?, da bigarrena. Arrazoiak ondoko hauek izan litezke: paristar erakertasuna eta karrera egiteko interesak; adimen-zalekeriaren eta euskal historiografiaren artean emandako gaizki ulertuak; historiografia neoforalistaren iraupen-indizea; estereotipoen iraupena edo P. Maseinen kasua; finean, Iraultza ez dela euskal historiografiarentzat bihurtzaren ondorioz da.

Sarrera horrekin euskal historiografiaren azterketa koantitatibora eta euskal ikasketetan hartzen duen tokia neurtzera igarotzen da. Historiazko obren inprimaketa iturriak eta jarraituriko estatistika-metodoa zehazten dira: ikerketako lanabesen bidez: horretarako erabilitako aldizkari garrantzizkoenak aipatuz. Euskal Herriko historiak elkarte eta aldizkari jakintsuetan harturiko tokia aztertzen da: miaturiko aldizkarietan atzemaniko artikuluen kontuak eginez; elkarte jakintsuen argitalpenetan agertzen diren komunikazioen berri emanez; historiako liburuen produkzioa neurtuz; taulen eta kontuen erabilerako moldea aipatuz; produkzio historiografikoaren erritmoa seinalatuz; sinkronismoen, ahaidetasunen eta eraginaren kopurua aztertuz; frantses eta europar eraginaren zerikusia bereziki zehaztuz; Parisen bultzatzeari loturik tokian tokiko edo eskualdeko iniziatibak izendatuz; finean, produkzio historiografikoaren bilakaeran azpiegiturek daukaten errola azpimarratuz.

Bigarrenik, produktore sozialen analisira edo jakintza historikoaren soziologiaren oinarri posibleak ikastera igarotzen da. Izaera historikoa duten

elkarte jakintsuen hurbileko inkesta irekitzen da: partaideen identifikazio sozio-profesionala eginez; Euskal Herriko historiak artikulua idatzi dituztenen identifikazio sozio-profesionala emanez. Baita ere produkzio sozialean parte hartzen duten talde garrantzitsuenak ikasiz: taldeak antolatze metodoa, egoera heterogenoak, mugikorak, berdinak eta desberdinak zaizkien joerak aztergai izanik. Arago, euskal historialarien errotzearen hurbilean, emazteki historialarien falta, adin helduko gizakien eginkizuna dela, jatorriari dagokionean lurraldeka orekaturik ageri direla, eta Baiona dela euskal produkzio historiografikoaren erdigunea esaten zaigu.

Hirugarrenik, egitura sozio profesionalen eta produkzio historiografikoaren arteko zerikusia datoz. Euskal Herriko apezkerian histori jakintza kultibatzeak xede zehatzik baduela adierazten zaigu: Iraultzaz gero apezkeriaren formakuntzan euskal historiak duen lekua medio; XIX. mendearen hirugarren aldi dagoen bihurtzaren lekuko. Apezkeria katolikoak histori jakintza produkzitzen duenaren kontenidua aztertzen da: 1789ko Iraultzak monopolizatuko luke haren lana; besterik da Iraultzaren zer historio den egiten digutena, eliz historiografiako pertsonalitate historikoak nabarmenduz, gaineratiko kategoria sozio-profesionalak guti izanik, noblezia itzaltzen dute. Bestalde, unibertsitateen ekarpena tokiko monografiak eta arkeologiako berriak agortuko dute. Artxibista bibliotekarioek, beren aldetik, artxi-boan dutenaren dependentsian iharduteko errua dute. Finean, Baionako historialariek zenbait berri ematen da.

Laugarrenik, XIX. mendeko historiografiaren kontu emate orokorra dator. Elkarte jakintsuen produkzio historiografikoan dauden gaien bildumatzea egiten da: Erlijioa eta Iraultza ageri dira gai nagusi bezala. Genealogia eta elaberri historikoa ondotik. Bereiztekoak dira, genero-historiografiaren produkzio-erritmoan, euskaldunen antzinate zaharrari buruzko historiografia, erudizio historiografikoaren agerpena, moralaren, filosofiaren eta erretorikaren zerbitzuko historiaren arriskua, eta Antzin Aroari eta Erdi Aroari ematen zaien toki eskasa. Finean, historiografia kezka identitarioz eta proiektu politiko-koz josia ageriko da: aurreiritzian eta lasterregi jaurtikitako orokorkeriak nagusi izanik, euskal nazionalitatearen sorrera topatzen da. Material kontzeptuala, pertsonalitateak eta esanahia azterturik, diskurtso historiografikoa eta nostalgikoa elkartzen direla ondorioztatzen da.

Obraren amaieran ondorio orokor-rrak gogoeta bilakatzen dira. Euskal historiografia emeki jalki izan dela birraipatuz, euskal historia lapurtu egin ote diguten galdera pausatzen du. Botere zentralak, hots, Estatuak ez digula inolaz ere lapurtu baieztatzeko, aitzitik, euskaldunek euskal interes orokorraren izenean historia kategoriala egin izan digutela esatera heltzeko. Antzinako Erregimenaren pean eginiko euskal historia, lehenik eta behin, printzeen edo jauntxo-entzako gertakarien ardatzean ari dela ere esaten zaigu. Funtsean, XVII-XVIII. mendeetan ez legokela Euskal Herriko produkzio historiografiko espezifikorik dio. Beste herrialde batzuek, garai berean, eta Estatu berean, dutenarekin

konbaraturik euskaldunen historiografia apalagoa litzatekeelako. Benetako aldaketa euskal historiografia propioari dagokionean XIX. mendean ematen dela diosku. Noiz nolako arrazoiz inguraturik legokeela idatzien emaitza adieraztera ematen da.

Interes handieneko obra dugu Manexen azkena. Hala ere, beti galdetzen jarrai liteke, autoreak zenbait aukera egin dituenean, bere gogoeta argitzeko edo zenbait aldiz argudiatzeko, zergatik eman dienei autoritatea eman dien, eta zergatik ixildu ditueni autoritate hori kendu dien. Hemen dago, noski, historiaren ahulezia orokorretariko bat. Garai bakoitzean azterketa-kriterio batzuek autoritatea ukaiten dutela, beste batzuetan ilunpe- ra igarotzeko. Are, ikertzaile bakoitzarentzat autoritatea dutenen zerrenda desberdina dela. Eta tesien kasuan, gehienetan, ez beti, autoritate-zerrendan agertu ohi diren batzuk inolako garrantzirik gabeak izan ohi direla. Tribunaleko erritua igaroz gero, ezarri diren tokian egotea justifikatzen ez dutenak alegia. Aldiz, une horretatik aitzina inoiz baino premiazkoago bihurtzen direnak ere, beren ausentziak min egiten duelako, eman ohi dira.

Bestalde, irakurle argiari autorearen zenbait joera pertsonal ez zaizkio jabetu gabe igaroko. Adibidez, euskal kleroak gure Herriaren historiografian ukan duen errol historikoa gogoko ez izatean, bere jarrera oro mesprezatzeko erraztasuna duela. Gauza bertsua esan behar da emaztearen errolaz. Emazte historialarien falta konstatatuzetik, antropologiak eta soziologia juridikoak, besteak beste, euskal gizartean emazteek ukan duten garrantzia nabarmendu digutenean, orain autoreak egin

duen konstatazioarekin kontrajarririk baleude bezala ematen zaigu. Euren artean bi fenomeno horiek ez dutenean zerikusirik elkar ukatzeko, noski. Finean, deigarri da euskaldunen artean eman diren gatazka historikoak nabarmentzeko duen eginahala, eta aldi berean, menperatu gaituzten Estatuaren interbentzioaren pisua arindu nahia. Beharbada, orokorki, euskal historiografian alderantzizko joera

eman delako, erdi bidera ekarri nahi da gauzen arazoia. Baina, euskaldunen artean klase-arazoak izan direla eta badirela egia bada ere, ez da laket gure gaineko Estatuaren interbentzioa hain ezti eta goxo izan dela zurrupatzea.

Orohar, obra nagusi bat duzu, irakurle, aipatu duguna. Ez ezazu denborarik gal irakurri gabe egonez. Balio du!

Jokin Apalategi